

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

9/2020 Foru Agindua, urtarrilaren 21ekoa. "Zambranako udal planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntuala"ren ingurumen txosten estrategikoa formulatzea

Zambranako arau subsidiarioen aldaketa puntualaren izapidetze lana ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura sinplifikatuaren eraginpean dago, zeina Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legeak arautzen baitu.

Prozedura horren esparruan, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak aldaketa puntual horren inguruko ingurumen agiri estrategikoa jaso du, Zambranako Udalak igorria eta Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legeak araututako gutxieneko edukiari jarraitzen diona, bai eta hirigintza dokumentazioa ere.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, lehen aipatutako agiriak jaso ondoren, kontsultak egiteko aldiari hasiera eman zion eragindako administrazio publiko eta pertsona interesdunen artean, 21/2013 Legearen 30. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Ebazpen honen oinarri den ingurumen txosten estrategikoa 2019ko abenduaren 16an eman zuten Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak (19/147 espediente).

1. Arau subsidiarioen aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aztertutako aukerak

1.1. Aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena:


Zambranako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioak behin betiko onetsi ziren Hirigintza, Arkitektura eta Ingurumen Saileko diputatuaren uztailaren 23ko 547/1999 Foru Arauaren bidez; hortaz, 20 urte baino gehiago daude indarrean. Udalak beharrezkotzat jotzen du aldatzea, premia berrietara egokitze.

Lau (4) aldaketa proposatzen dira:

– I. aldaketa (silo zaharreko jarduketa eta bizitegiatarako OD.5 ordenantza berria): nahi dena da, alde batetik, hirigintza aldetik egokitzea 1 poligonoko 1007 lurzatia, eta eremua batera antolatu eta leheneratzea etxebizitza publiko gisa erabiltzeko, eta, beste aldetik, premia berrietara egokituriko etxebizitzaren tipologia berri bat proiektatzea, udal etxebizitza politikarekin bat datorrena eta bizitegiatarako ordenantza batek babestua.

Jarduketa integratu baten mugaketa hartuko du (silo zaharreko jarduketa), eta honela osatuta egongo da: 1 poligonoko 1007 lurzati pribatua (A, B eta C azpilurzatiak) eta haren aurrealdea, zeina Real kalean baitago eta A-3216 foru errepidea hartzen baitu, eta horrek egikaritze unitate bakarra dakar. Jarduketa hori egiteko, berriz ere kalifikatu behar da 1 poligonoko A azpilurzatiako 1007 lurzatia, zeina orain hiri lurzoru finkatu gisa kalifikatuta baitago ekipamendu orokorrerako. Halaber, B eta C azpilurzatiak eremuaren barruan sartuko dira, orain daukaten lurzoru urbanizaezinen sailkapena berriz sailkatu behar delako.

Gainera, bizitegiatarako beste ordenantza bat egin nahi da (bizitegiatarako OD.5 ordenantza berria), zeinak eskari eta premia berrien araberako etxebizitza tipologia arautuko baitu, batez ere lurzatiaren tamainari, eraikuntza tipologiari eta atzeraemanguneei dagokienez, halako moldez non etxebizitza egitea baimenduko baita oraingo prestazioekin, eta hasierako gunearen forma tradizionalarekin bat datozen lurzatiatan.




– II. aldaketa (mendebaldeko ekipamenduko jarduketa): Jarduketa integratu baten mugaketa hartzen du, eta honela osatuta dago: 1 poligonoko 1153 eta 1154 lurzatiak eta 1153 lurzatiaren aurrealdeko bidea eta Solana kalearen jarraipena, horrek lurzoru urbanizagarria dakarrelarik ekipamenduen sistema orokorrerako, horri esker iturri berriztagarrietatik datorren energia ekoiztearekin zerikusia duten azpiegiturak eta haien instalazio osagarriak kokatuko baitira.

Jarduketa hori egiteko, berriz ere sailkatu behar dira egun lurzoru urbanizaezinean dauden 1 poligonoko 1153 eta 1154 lurzatiak.



— III. aldaketa (berriz ere kalifikatzea bizitegiak-ekipamendua): 1 poligonoko 923 lurzattia berriz kalifikatu nahi da, zeina orain bizitegietarako hiri lurzoru gisa kalifikatua baitago, eta osasun-artatze ekipamendu orokorreko sistema gisa taxutuko da (GG-GO.2), erabilera askotarako osasun-artatze zentro bateko instalazioak kokatzeko.






– IV. aldaketa (GO.2ren doiketa puntuala): beharrezkoa da GO.2 ordenantzak araututako mugei buruzko parametroen doiketa puntuala; hain zuzen ere, ASetako araudi orokorraren 129. artikuluko 5. puntua (5. Oin berriko esku hartzei aplika dakizkiekeen baldintzak eta parametroak, d) Eraikinaren eta mugen arteko gutxieneko tartea, "Alboetako eta atzealdeko mugekiko: 3 m" apartatua).

1.2. Ebaluatu beharreko eremu geografikoa:

Zambranako herria da aldaketa puntualaren eremu geografikoa, zeina izen bereko udalerrian baitago, Arabako Haranen eskualdeko hegoaldean. Eremuan hiru zona daude, zeinen lurzorua beriz kalifikatu edo sailkatu behar baita, halaxe baitio aurreko apartatuak.



1.3. Aztertutako aukerak:

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan azaltzen denez, aukera hauek hartu dira kontuan:

I. aldaketa (silo zaharreko jarduketa eta bizitegiatarako OD.5 ordenantza berria):

– “0” aukera (ez dute aukeratu): aukera honek ez die erantzuten etxebizitza publikoa sustatzeko planteatutako ekimenei.

– “1” aukera (ez dute aukeratu): Eusko Jaurlaritzak eta Udalak 2009ko urtarrilaren 12an sinatutako lankidetzaren hitzarmena, non lehenengoak izango baitzukeen etxebizitzak babes ofizialeko erregimenean urbanizatu eta altxatzeko ardura. 2019ko apirilaren 16ko hitzarmenaren ebazpen akordioan bertan, aukera hori baztertu zen iritzi zitziolako sustapen tipologia hori ez zettorrela bat Zambranako herrigunearen idiosinkrasiarekin.

– “2” aukera (aukeratutakoa): alde batetik, planteatzen da eremuan jarduketa integratua mugatzea, finkatu gabeko hiri lurzorua izaki, eta ondoren xehetasunez antolatzea. Barrualdeko bide bilbea taxutzea proposatzen da, gehiago oinezkoentzat ibilgailuentzat baino, elkarrekin lotuko dituen bizitegiatarako lurzatiak eta erabilera publikoko espazio libreak, zerbitzu emangodiona 1006 lurzatiari (Telefónica SA da jabea) eta ahalbidetuko duena etorkizunean Zambranako zona honetan dagoen “lurzoru poltsa”n integratzea eta haren zati izatea.

– Bestalde, bizitegiatarako ordenantza berri bat planteatzen da, udaleko bizitegien garapen politikarekin bat datorren planeamenduko hirigintza araudi orokorrean sartu beharrekoa.

II. aldaketa (mendebaldeko ekipamenduko jarduketa):

– “1” aukera (ez dute aukeratu): aztertu zen 1 poligonoko 1004B lurzatian egitea jarduketa, zeina “lurzoru poltsa”n baitago, landa lurzoruan, herriaren hegoaldeko muga. Aukera horren alde eginez gero, haren sarbidea konpondu beharko zatekeen, 1004A hiri lurzatiatik zein lehenengo aldaketa puntualean jasoriko eremu berritik. Irtenbideetatik lehenengoa aukeratuz gero, hiri lurzati bat desjabetu beharra zegoen eta, horrez gain, bideak urbanizatu behar ziren, eta horrek, gainera, ibilgailu astunak herriaren erditik igarotzea zekarren. Bigarren irtenbidea aukeratuz gero ere ibilgailuak bizitegi zona batetik igaro beharko ziren, eta, gainera, proiektuan jasoriko haurrentzako parkearen mugakide izango zen. Beste arrazoi bat baztertzeko izan zen instalazio bat dela, zeinaren jarduerak eragozpenak eragin diezaikeen herritarrei, baita ikusizko nolabaiteko inpaktua ere; gainera, bizitegiatarako lurzoruz inguratua dago.

– “2” aukera (aukeratutakoa): 1 poligonoko 1153 eta 1154 lurzatiaren bide bat dago Solana kaletik sartzeko, eta kasik ez die eragiten hirugarrenei. Lurzati horiek herrigunetik hurbil samar daude, eta eremuak nekazaritza pabilioi bat dauka mugakide. Aukeratu dena izan da lurzati horiek hiri gunean sartzea, hiri lurzoru izan baino lehen; izan ere, udalerriko lurzoru urbanizaezinen oraingo hirigintza araudiak ez du uzten behar bezalako baldintzetan ezartzen beharrezko azpiegitura eta ekipamenduak.

III. aldaketa (berriz ere kalifikatzea bizitegiak-ekipamendua):

– “1” aukera (ez dute aukeratu): aztertu zen mantentzea herriko oraingo mediku kontsultegiaren kokalekua, zeinak inbertsio handia eskatzen baitu erabili ahal izateko. Alde batera utzi zen iritzi zitziolako oraingo kokalekuak ez diela erantzuten erabilera askotarako zentro baten eskariei, hauexei dagokienez: edukiera, irisgarritasuna eta beste administrazio bati lagatzea.

– “2” aukera (aukeratutakoa): beste kokaleku bat aurkitu zen, erabilera askotarako zentro bat egiteko modukoa, udal osasun zentroa, botika kutxa eta oinarrizko bizi euskarridun ambulanzia jartzeko. Udalaren jabetzapeko 1 poligonoko 926 lurzatiak aukeratu zen, Osakidetza lagatzeko. Bizitegiatarako lurzorua da eta ekipamendu konpentsatua izango da.

IV. aldaketa (GO.2ren arauketaren doiketa puntuala):

Ez da aukerarik aztertu, araudi orokorraren arauketaren doiketa puntuala delako.

2. Kontsulta fasearen laburpena

2019ko irailaren 16an, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak hasiera eman zion eragindako administrazio publikoei eta interesa duten pertsoneri kontsulta egiteko faseari, araututako prozedurari jarraituz. Jarraian, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarten zerrenda jarri da, eta haietatik zeinek erantzun duen adierazi da:

URA - Uraren Euskal Agentzia	√
Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	
Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Eusko Jaurlaritzaren Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza	
Arabako Natura Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza Natura Elkartea	
GAIA elkartea	
Gasteiz Zero Zabor	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartea	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	√
Arabako Kontzejuen Elkartea	
SEO Bird Life	
Energiaren Euskal Erakundea (EEE)	
Zambranako Udala	
Zambranako Administrazio Batzarra	
Añanako Kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	√

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoaren laburpena (alegazio edo gogoeten kopia osoa dago Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 19/147 espedientean eta www.araba.eus web orrian):

- URA - Uraren Agentziak txosten bat prestatu du, eta han zehazten denez, “zure eskaera Ebroko Konfederazio Hidrografikoari igorri zaio, egokituz joz gero gaiaren gainean informatzeko, betiere Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legeak ezarritakoarekin bat etorritik”

- Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak hau jasotzen du txostenean: “aldaketak eragindako lurzatietan ez da interes arkeologikoko ezer aurkitu. Hortaz, ez dago eragin arkeologikorik”

- Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak jakinarazi du aldaketa puntualaren eremuan ez dagoela eraginik kultura ondarean.

- IHOB E Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak honako hau adierazi du: “Erakunde honek duen informazioaren arabera, aipatutako kokapenean ez da izan lurzorua kutsa dezakeen jarduerarik; horrenbestez, ez dago jasota lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan” Era berean, hauxe dio: “kutsadura zantzurik agertuz gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazi beharko zaio, Lurzorua Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzeari buruzko 4/2015 Legearen 22. artikuluan ezarritakoa betez”

- Arabako Foru Aldundiaren Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak bere txostenean dio ezen proposaturiko aldaketak ez diela eragiten historia edo kultura ondareagatik babestuta dauden elementu edo higiezinei eta, beraz, ez dagoela inolako oztoporik izapidetzeko.

- Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Zuzendaritzak txosten bat eman du, eta hor, aldaketa puntualaren laburpen bat egin da, eta nabarmentzen da hura onestek dakarren inpaktua bateragarria dela, baldin eta konpentsazio neurri hau sartzen bada:

“Kalitate handiagoko labore azalerak babesteko, proposatzen da ingurumen agiriaren II.9 apartatuan (“II.9 Ingurumeneko eragin negatiboei aurre hartzeko, eraginak murrizteko eta zuzentzeko neurriak”) neurri bat sartzea konpentsatzeko Balio Estrategiko Handiko lurzorutik (BEH) galdutako 3.200 m²-ak, udal ordenamenduaren barruan beste azalera batzuk kalifikatuta kategoria horretan egon daitezkeenak.

3. Aldaketa puntualaren ingurumen inpaktuaren deskribapena

Bat etorri ingurumen agiriaren II.9 apartatuan jasorikoarekin (“II.9 Ingurumeneko eragin negatiboei aurre hartzeko, eraginak murrizteko eta zuzentzeko neurriak”), irizten zaio ezen Zambranako udal planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntualak, idatzita dagoen bezala, ez duela sortzen ingurumen eragin nabarmenik. Aldaketa puntuala bera gauzatzen denean bakarrik sor litezke inpaktu nabarmenak; hau da, xedapen aldaketari lotutako jarduketak gauzatzen direnean.

Mendebaldeko ekipamenduko jarduketak egun 1314 lurzatian dauden bi zuhaitz handiak mantendu eta kontserbatu beharko ditu.

Aldaketa puntual hau onestearen ondorioz egin daitezkeen eraiste, mantentze eta eraikuntza obrak egin beharko dira, halako moldez non ez baitira eragingo sortu diren hondakinak behar ez bezala kudeatzeagatik sor litezkeen kalteak.

4. Ondorioa. Ingurumen baldintzatzaileak

Ingurumen agiriaren II.9 apartatuan jasoriko ingurumen integratioko neurriez gain (“II.9 Ingurumeneko eragin negatiboei aurre hartzeko, eraginak murrizteko eta zuzentzeko neurriak”), baldintza hauek ezarri dira Zambranako udal planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntualaren hirigintza agiriaren araudian xertatzeko:

– Aldaketa puntuala garatzeko jarduketek eragin litzaketen eraispen eta eraikuntza lanak gauzatzeko aldian, ontzi estankoak, gordailu iragazgaitzak edo bestelako sistemak jarri beharko dira lubrifikatzaileak edo erregaiak biltegitatzeko, eta debekatuta dago erabilitakoak isurtzea. Kudeatzaile baimendu bati emango zaizkio halakoak. Debeku hori beste hauetara ere hedatzen da: hormigoi hondakinak, eraikinetako materialak, lurrak eta abar; horiek guztiak baimendutako hondakindegia edo zabortegietara eraman beharko dira. Ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan adierazi bezala kudeatu beharko dira eraikuntzako eta eraispen lanetako hondakinak. Dekretu horrek eraikuntzako eta eraispenetako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu.

Horrenbestez, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikulua ematen dizkidan eskudantziak erabiliz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. "Zambranako udal planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntuala"ren ingurumen txosten estrategikoa formulatzea.

Bigarrena. Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legea betetzeko, ingurumen txosten estrategikoa ingurumen irizpen erabakigarria izango da neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Agintzea ingurumenaren txosten estrategiko hau ALHAOn argitara dadila.

Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 21a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO